

Buruntzaldean gida-baimena euskaraz

Buruntzaldeko Euskara Batzordeek euskararen erabilera sustatzeko hainbat egitasmo jarri dituzte martxan. Eta, oraingoan, *Semaforo berdea: orain gidabaimena euskaraz. Eman bidea* ekimena aurkeztu dute.

Kultur etxean egin zen prentsaurrekoan, Rikardo Ortega, Lasarte-Oriako Euskara Batzordeko lehendakariak, Idurre Lukas Hernaniko Euskara Delegatuak, Arantxa Otamendi, Gipuzkoako auto-eskolen elkarteak presidentek eta Marifer Gorostizak, Lasarte-Oriako euskara teknikariak eman zuten honen berri. Helburua auto-eskoletan euskararen erabilera normalizatzea da herritarrek zerbitzua euskaraz izan dezaten.

Euskarriak

Horretarako, Idurre Lukas Hernaniko Euskara Delegatuak azaldu zuen bezala "euskarriak eman dizkiegu."



Prentsaurrekoan Buruntzaldeko herritarrek auto-eskoletan gidabaimena euskaraz ikasteko duten materiala aurkeztu zen.

Euskarri horiek liburuak, ikusteko eta multimediatiko programa bat dira. Gipuzkoako auto-eskolen elkarteak presidentek adierazi zuenez, "honetako materiala aurkitzea zaila da."

Marifer Gorostizak Lasarte-

Oriako teknikariak azaldu zuen multimediatiko programak eskaintzen dituen aukerak: batetik liburuko gaiak irakurri eta entzun daitezke; bestetik testak egin eta gaizki erantzunez gero, liburura jo daitezke. "Era atseginagoan eta interakti-

boagoan ikas dezaten egin dugu," azpimarratu zen.

Normalizazioaren bidea

Buruntzaldean dauden 11 auto-eskolek parte hartuko dute egitasmoan eta materiala dagoeneko banatu zaie. "Uda-

len laguntzei esker, materiala eskuratu dute auto-eskolek" aipatu zuen Mariferrek.

Urrats sendoa eman da, baina, aurrera begira lana dago egiteko oraindik: Trafiko bulegoko dokumentazioa euskaratzea, irakasle eta aztertzaile elebidunak izatea,... Horregatik, ekimen honek urtero urtero jarraipena izango du, "normalizazioa lortu arte."

Maiatzean, gazteak helburu

Gainera, maiatzean gazteei zuzendutako kanpaina abian jarriko dela ere aurreratu zuten. "Gaur aurkezten dugun kanpaina herritar guztiak dago zuzendua, baina maiatzean zehatzagoa izango dugu, 18 urte betetzen dituzten gazteei begira egingo da," aipatu zuen Lasarte-Oriako teknikariak.

Izan ere, gogoratu zuten bezala, "eskolatik euskaldun ateratzen den gizatalde honek, gidabaimena izan ohi du lehentasunen artean." •

Antzerki show umoretsua eskaini zuen Matxin aktoreak

Ostiral arratsaldeko "Yo seré la number one" antzezlanean umorea izan zen nagusi Kultur Etxean. Iruñeako Matxin aktoreak berak bakarrik rol ezberdinak bete zituen Gazteria sailak eta Xpression kultur elkarteak antolatutako emanaldian. Aktorearen monologoak ikusteko bete egin zen Kultur Etxeko kafetegia. Kafe antzerki, Klown eta mimo ukituak zituen antzezlan arin, komiko eta barregarrian dena berak egiten du, Matxin bera da autore, aktore eta zuzendari. •



PILOTA /2

Asier Arteaga haurren mailako Gipuzkoako Txapeldun ordea da buruz buru

ALBISTEA /3

2009. urtean jaitsi egin da odol emaleen kopurua

ELKARRIZKETA /5

San Pedroko Andonegi apaiza Munilla gotzain berriari buruz

SUGATE SUKALDEAK



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

Asier Arteaga, Gipuzkoako txapelkun orde

■ 13 urterekin Gipuzkoako Binakako Pelota Txapelketan ari da orain ■ Juan Mari Arteaga aita 15 urtetan izan zen profesional ■ Honek 8-16 urteko 30 haur prestatzen ditu pelotari izateko

Asier Arteaga futbolearen eta pilotaren ari da, 13 urteko beste gaztetxo asko bezala, batetik Ostadarren eta bestetik Intzan. Geroago bat aukeratu beharko dute, baina oraingoz bi kirolak uztartzen dituzte. Zein duen gustukoaren galdetuta pilotaren alde egin zuen Asierrek. Gustatuko litzaiok gerora pilotari izatea bere aita duela urte batzuek izan zen bezala. Juan Mari Arteaga pilotari profesional ohia da gaztetxo hauen prestatzailea, orain, Jesus Presa herrian bizi den bizkaitarrarekin batera.

JON ALTUNA

A benduan Gipuzkoako pilota txapelketako finala jokatu zuen Asier Arteagak Alde Zaharreko Julen Chiapusoren aurka, baina ez zuen txapela janzterik izan. Orain Mikel Aranguren anti-guattarrarekin batera binakako txapelketako lehen fasea gainditu du eta berriz txapela eskuratzeko saiatuko da.

Intza Kirol Elkarteko Asier Arteagak oso gertu izan zuen txapela Zestean jokatu zen finalean baina berdinketa hausteko hirugarren norgehiagokan galdu zituen aukerak, saketik lauko marra bi aldiz pasa eta gero.

Infantil mailako txapelketa modu berri batean jokatu da lau koadroen barruan. Lehen jokoan sakeak Chiapusok zituen eta 8-3 nagusitu zen. Bigarrena Arteagak irabazi zuen 7-8 eta berdinketa hausteko jokoan 4-1 nagusitu zen donostiara.

Arteaga eta Presa

Juan Mari Arteagak eta Jesus Presak gutxi gorabehera 30 bat haur prestatzen dituzte pilotari izateko. Arteagak azaldu digunez, astean egun batean Villa Mirentxuko trinketearen aritzen dira eta beste egun batean Michelingo frontoian: "Lehen trinketea geldi xamar zegoen, eta bizi piskat ematea pentsatu genuen, orduan asteartean trinketearen aritzen dira eta ostegunetan frontoian edo alderantziz. Trinketeko postura ondo etortzen da, Irujo bera ere trinketearen ibilia da, iparraldekoak ere bai. Postura askotan sartu behar izaten dute teilaurengatik eta ikasketako ondorengatik".

Zazpi zortzi urterekin hasi eta 12 urtetik aurrera Gipuzkoako txapelketa jokatzeko dute infantil eta alebin mailatan. Aurten sistema berria erabili dute, lau koadro barruan,

bi partidu zortzira, lehenengo batek sake guztiak dituela eta gero besteak. Bakoitzak partidu bana irabazi eta berdinketarik bada hau hausteko lau tantora jokatzeko da beste bat sakea txandaka dutela, partidu normal batean bezala. Juan Mari Arteagak esan digu finalean urduri xamar izan zela Asier semea eta ez zuela irabazterik izan.

Arteagaren ustez ondo dago aldaketa, "8ra dira partiduak baina gorriak ikusten dituzte irabazteko. Pilota mistoa erabiltzen dute, ez gogorra ez goxoa. Min gehiegi ere ez dute egiten sakearekin, baina iniziatiba horrek dauka, sakea daukanak, eta besteari kosta egiten zaio irabaztea. Lehen adin hauetan gertatzen den indarra zuen gaztetxoren batek sakea hartuz gero, tanto guztiak egiten zituela: agian pilotan ez zekien asko baina sakeari esker 16-0, edo 16-1 irabazten zuen. Horregatik aldatu da sistema".

Orain jokoetako batean sakeari erantzutea tokatzen zaie eta ondo datorkie errestatzen, lurretik zutitzen,... ikasketako. "Ondo dago, kontua da kadetetan, segituan, errealtatara itzultzen direla".

Gaztetxo gehienak pilotarekin batera beste kirolen bat ere egiten dute, gehienek fut-

Zortzi bat urterekin hasi zuen Asier Arteaga pilotaren lagun arteko partiduak jokatzeko eta jada serioago alebinatean, 12 urterekin. Aurrelaria da eta Titin III. miresten du pilotari bezala. Banaka, buruz buru, jokatzeko ere gustuko du.

Astearte eta ostegunetan elkartzeko dira entrenatzeko eta gero asteburu gehienetan partiduak izaten dituzte. Eta partidurik ez badago entrenamendua.



Asier Arteagak oso gustuko du pilota eta aitaren bidea hartu du. Hau profesionala izan zen 15 urtean.

“ Futbolearen eta pilotaren aritzen dira gehienak eta futbola ondo datorkie han alde fisikoa lantzen dutelako.

bola, eta beraz hor sortzen dira arazoak, entrenamendu eta partidu guztiak uztartzera. "Pelotan ondo ibiltzen dena futbolearen ere ondo ibiltzen da," diosku Arteagak. "Dena den, futbola ondo etortzen zaie han alde fisikoa lantzen dutelako". Pilotaren jokatzeko teknika eta posturak erakusten aritzen dira Jesus Presa eta Juan Mari Arteaga baina entrenamendu fisikorik ez dute egiten. Pilotarako ere

ondo datozkie beraz futboleko entrenamendu zorrotzak, "20 minutu korrika, gero gerriarentzako ariketak, baloiarekin jolasak,... fisikoki ondo daude".

Gerora erabaki beharko dute bat ala bestea, baina oraingoz bietan ari dira. "Iarunbat goizetan jokatzeko dituzte futbol partiduak eta pelotakoak arratsaldean jarri genituen. Hala ere nabaritzen dute, goizean futbol partidua

jokatu eta arratsaldean pelotan jokatzeko nekea daukate askotan".

13-14 urteko pilotariak eskuetan takoak jarrita entrenatzen dute. Juan Mari Arteagak jakinarazi zigunez, "infantiletan pilota mistoarekin jokatzeko dute, tako apur bat jarrita minik ez hartzeko. Kadetetan bestela sekulako saltoa dago, jada punpako pilotari erabiltzen dituzte eta".

Aspaldiko lagunak

Juan Mari Arteaga eta Jesus Presa aspalditik ezagutzen dira. Askotan jokatu zuten elkarren aurka afizionatuak zirenean. Gerora Jesus Lasarte-Oriara etorri da bizitzera eta orain biak dira 8 eta 16 urte bitarteko jokalaritza gaitzen prestatzaileak.

Arteagak 15 urte egin zituen profesional. Mara ditzuten zioten, Maradonak bezala ile kixkurra zuelako. Afizionatutan dena irabazi zuen, munduko txapelketa izan ezik. 1982an Mexikon iparraldekoen kontra galdu zuten, Errandoneak eta biak. Profesionalean, binakako txapelketako finalerdi bat jokatu zuen Galarzarekin, Retegi II eta Belokiren aurka. Tolosarekin batera San Mateo sariketa bat irabazi zuen. •

Aita semeak pelotari

Orain Binakako Gipuzkoako Txapelketan ari da Asier Arteaga Mikel Aranguren anti-guattarrarekin. Lehen fasea erraz pasa dute, lautik bi bikote egin dute aurrera eta laster kanporaketak hasiko dira. Gipuzkoako osoan jokatzeko dute tokatzen den lekua.

Asier Arteaga txikitatik hasi zen nabarmentzen. 13 urte dauzka eta lehen txapelketa 8 urterekin irabazi zuen Ordi-

zian. San Pedrotako askotan eskuratu du Lasarte Oriaren, eta 11 urterekin Alde Zaharrean, Adunan eta Alkizan atera zen garaile.

Txapel gehienak binaka jokatuz lortu ditu, behin batekin eta hurrengoan beste batekin, ez dauka bikote finkorik, edozeinekin jokatzeko, txapelketa bakoitza atzelari batekin. Aurten oso gustura ari da Mikel Arangurenekin.



Odol emaien ordezkartzako datuen arabera, odolbeharrei erantzuteko kopuruen ratioaren azpitik dago gure herria.

Odol emate kopuruak ez du beharra asetzen

■ Odol emaien elkartearen datuen arabera, 2009an %3,29 jaitsi dira odol ateratzek

Lasarte-Oriako Odol emaien ordezkartzako datuen arabera, 2009ko datuak 2008. urtekoak baino okerragoak dira.

Urtean zehar, guztira 706 odol emate izan dira herritarrek egin dituztenak, aurreko urtekoak baino 24 gutxiago.

Datu honek iaz 2008. urtean eskuratutakoaren %96,71a lortu zela adierazten du eta 2007. urtean bildutakoaren %94,26a.

Odol-ateratze kopuru honek, gutxi gora behera, mila biztanleko eta urteko

39,22 odol emateren batz bestekoa dakar. Odol beharrei erantzuteko kopuruen ratioa 50a denez, honen azpitik dago gure herria.

Eta, gainera, nahiz eta, 2009. urtean, 27 odol emate berri hurbildu Osasun zentroa, kopuru hori ez da nahikoa ordezkartzan izan diren bajak berdintzeko.

Kontrolak eta neurriak

Datu hauek kontuan izanik, odol emariaren atzerakada nabarmena izan dela adierazten du herriko ordezkartzak.

Eta odol emaleek jasan behar dituzten neurri eta kontrolari egokien diete errua, "gero eta neurri eta kontrol zorrotzagoak daude ateratzetan, edozein gaixotasunengatik kutsatua dagoen odola egon ez dadin."

Odol ateratzea gaur

Gaur arratsaldean gainera, hitzordua dute odol emaleek Osasun Zentro berrian, izan ere, hilabeteko odol ateratzea baita. Era honetara, ordezkartzak herritarrek animatu nahi dituzte odol ematera. •

UDALA

Aparkalekuko tarifa bereziak martxan



Lasarte-Oriako Udalak martxan jarri ditu dagoeneko Loidi-Bareneko errotazioko aparkalekuko tarifa bereziak, gaueko eta asteburuetakoa.

Gaueko tarifa arratsaldeko 19:00etatik goizeko 7:59ak arte da eta gau osoaren tasa euro batekoa izango da. Tarifa honetaz baliatzeko, ibilgailua gutxienez sei orduz eduki behar da aparkalekuan.

Astebururako tarifari dagokionez, euro batekoa izango da ere egonaldi osoa. Iganetan ezarriko da, 8:00etatik 18:59ra, eta, beti ere, gutxienez sei orduz ibilgailua bertan izanda.

Udaleko alkateak jakin badaki herritar askorentzako arazo handia dela aparkatzea, eta modu honetako neurriekin lanean jarraituko dute zailtasun horri irtenbidea emateko. •

UDALTZAINAK

Jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatala jasota, argazki kamara, urrezko eskumuturrekoa, zilarrezko eskumuturrekoa, Seiko markako bi eskumuturreko erloju, Vieceroy markako eskumuturreko erloju, Massimo Dutti markako eskumuturreko erloju, diruzorroa, urrezko eraztuna, urrezko katea eta zilarrezko zintzilikarioa.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikusatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbildu daitezela, 09:00etatik 13:00etara. •

ALKATETZA

Bisita ugari izan zituen alkateak iaz

Lasarte-Oriako Udalak jakin arazi duenez, Ana Urchueguia alkateak 2009an zehar, 850 bisitatik gora izan zituen, gutxi gora behera, aurreko urtean baino ehun gehiago.

"Alkatearentzat, bizilagunekin zuzeneko harremana izatea oso garrantzitsua da eta udalerrian egin daitekeen lanik garrantzitsuenetarikoa. Izan ere, lasarteoriatarren arazoak eta kezak zuzen-zuzenean ezagutzea ahalbidetzen baitu," azaltzen dute alkatezatiak.

Ezkontzei dagokionez, iazko datua ere eskaini du alkateak. Honela, 2009an, alkateak 15 bikote ezkondu zituela adierazi dute. •

OSTADAR

Zozketaren saria 8588 zenbakiarentzat da

Ostadar K.F.ak zozketa txartelak saldu zituen abenduan zehar. Saria nekazal etxe batean asteburu pasa zoragarri bat da.

Elkarteak jakin arazi duenez, zenbaki irabazlea El Niño lote-riako zenbaki sarituaren azkeneko 4 zenbakiekin bat datorren txartela da, 8588 zenbakia.

Irabazleak Ostadarreko bulegora deitu, 943 360 433, edo Geltoki kalea 25 zenbakian duen egoitzara hurbildu behar da. •

Pala Txapelketan izena emateko epea zabalik

Ostadar K.F.ak XVI. Gomazko pilotako Pala txapelketa antolatuta du eta gaur ireki da izena emateko epea.

Antolatzaileek adierazi dutenez, bikote bakoitzak inskripzioa egiterakoan 22 euro ordaindu behar ditu.

Era berean, bikoteek txapelketako oinarriak eskuratzeko Ostadarreko bulegora, Geltoki kalea 25 zenbakira hurbildu edo 943 360 433 telefonora deitu behar dutela ere azpimarratu dute, otsailaren 5a baino lehen.

Ahots zurien abesbatza Brigidetan

V. Musika Topaketen barruan, Náyade abesbatzak kontzertua eskainiko du ostiralean, arratsaldeko 19:30ean, Brigitarren komentuan.

Errepertorio zabal eta anitza duen ahots zurien abesbatza hau 1997an sortu zen. Abesbatzaren sorreran Pili Anuncibay izan zen zuzendaritzaz arduratzen zena, baina duela bi urtetik hona Alaitz Urkia betetzen ditu zuzendari lanak.

Irun eta Hondarribiako 25 eta 35 urte bitarteko 20 emakume osatzen dute abesbatza. Honela, esperientziadun abeslariaren ahotsak, jende berriaren freskotasuna, indarra eta gozatzeko nahiarekin bat egiten dute.

Hamar urte hauetan, kontzertu ugari eskaini ditu eta lehiaketetan ere parte hartu du hainbat sari eskuratu, hala nola, Zumarragako La Anti-



Nayade abesbatzak eliz musika eta euskal folklorea eskainiko du ostiralean.

guako lehiaketan lehenengo postua 1999. urtean edo bigarrena 2007an.

Ostiraleko kontzertuan ikusiko da, abesbatza honen errepertorioan garai eta estilo ezberdineko eliz musika eta profanoaz gain, folkloreak ere

baduela bere lekua, euskaldunak batez ere.

Ahots musika "a capella" entzuteko aukera izango da Brigidetan, baina instrumentuen laguntzaz (piano, organo ganbara orkestra, banda...) ere abesten dute. •

Xabier Andonegi San Pedro Parrokiako apaiza

"Hausturatik elkarrizketa bidera egin dugu salto"

Jose Ignacio Munilla, Donostiako gotzain berria izendatzearen kontra agertu eta manifestu bat sinatu du Xabier Andonegi, San Pedro Parrokiako apaizak, Gipuzkoako beste apaiz askok bezala. Gotzain berriaren etorrerak iskanbila sortu du gizartein, Urriarteren garaian lortutakoak galduko direnaren baitan. Munillak behin kargu hartuta badirudi, egoera bidezten ari dela eta elkarrizketa bidera egin dieula salto. Gu Andonegirekin izan gara honetaz guztiaz.



Idazlea MORENO bideak eta borondateak ez erespikatzean zegoen.

Zerk sortu zuten Munillaren izendapenaren inguruan ezinezkoa da auzoa auzotzat gain, beste zehin helburu zuten? Gotzain berriaren eta jada Gipuzkoan ginen apaizen artean sintonia eza nabaria zuten, beraz, eskutitz honen bitartez erakutsi nahi genion orain arteko tuntonamendu ona mantentzeko elkarrizketak egin behar genuela lan. Gaur egun, ezinezkoa egingo zaigu jarraitzeki, besteak, bere eskutitzak erabiltzeki eta gainerakoak erretiratu egingo ginaie.

Prestoa egitia gurekukan azken helburu. Gozaina bera da, baina apaizaren egin behar du lan nahia nahiez. Azken urtean sortutako alde, elkarrekin jarduera eta jendearrekin egin behar du lan, eta konturatzeko modu berrak. Bi aukera ematen genizkion, dimittitu edo elkarrekin lan egitea. Gaurak ardebu behariko dira, eta ez da errezia izango, baina bidea luzera izango dela.

Urtiarteren ekapenez hitz egin ten duzue eta hori gaitzaren beldurra... Momentu hauetan, estrauroa eta adin gehiagoko gaudela, lehen elizaren mundua apazak gaitzaren beldurra...

Zer den datza barruko antolaren dimizioa? Estrauroa berriak sortzen ari gara. Gero eta apaiz gutxiago daude behariko dira, eta ez da errezia izango, baina bidea luzera izango dela.

Zer den datza barruko antolaren dimizioa? Estrauroa berriak sortzen ari gara. Gero eta apaiz gutxiago daude behariko dira, eta ez da errezia izango, baina bidea luzera izango dela.

Zer den datza barruko antolaren dimizioa? Estrauroa berriak sortzen ari gara. Gero eta apaiz gutxiago daude behariko dira, eta ez da errezia izango, baina bidea luzera izango dela.

Zer den datza barruko antolaren dimizioa? Estrauroa berriak sortzen ari gara. Gero eta apaiz gutxiago daude behariko dira, eta ez da errezia izango, baina bidea luzera izango dela.

Zer den datza barruko antolaren dimizioa? Estrauroa berriak sortzen ari gara. Gero eta apaiz gutxiago daude behariko dira, eta ez da errezia izango, baina bidea luzera izango dela.

M. Berasategi Kafeak. Besti dago aukeratu kafea on bat jarrezko. Includes a list of coffee varieties and contact information.

Hipodromo etorbidea 1. Includes a list of horse races and contact information.

YOLANDA TABERNA. Eguneko menua; egunez astelehenetik igandera gauraz astelehenetik ostegunera. Includes a list of menu items and contact information.



Juan Mari Uhartek San Pedro Parrokiaren 199. gotzain bezala emandako azken meza. egituratzea eta sustatzea. Eta bakoitza eta ondo baloratzen dugu hartutako postura. Bere lurretarre iskanbilatuaren ondoren, badirudi prest dagoela gurekin lanari jarretzeko, skontziko eta ezagutzeko.

Biharbaren aukeraketa ereduaren sustatzea Bikarioa, gotzainaren ordezkoa da, eta normalean Gipuzkoan lanean darduten apaiz bat izaten da. Hastieran, kanpotik, bere lagunen batezainko zuela berriak ematen ziren, orain arte erabiltzen zuten aukeraketa ereduaren sustatzea.

Zer dela eta uste duzue gertatu dela aldaketa hau? Egin dugun prestoa erregulatu ondoren, uste dugu, gainera, berriak ematen zirela, orain arte erabiltzen zuten aukeraketa ereduaren sustatzea.

Zer dela eta uste duzue gertatu dela aldaketa hau? Egin dugun prestoa erregulatu ondoren, uste dugu, gainera, berriak ematen zirela, orain arte erabiltzen zuten aukeraketa ereduaren sustatzea.

Zer dela eta uste duzue gertatu dela aldaketa hau? Egin dugun prestoa erregulatu ondoren, uste dugu, gainera, berriak ematen zirela, orain arte erabiltzen zuten aukeraketa ereduaren sustatzea.

Zumaburu kalearen zati bat itxita ostegunetik aurrera

Saneamendu-sareko lanak direla eta, eremua ibilgailuz libre geratu behar du datorren asteazkenerako

Udalak jakin arazten du, datorren ostegunean, urtarri-lak 28, Lasarte-Oria eta Usurbil udalerrien saneamenduko interzeptore orokorreko lanak hasiko direla.

Obra Zumaburu eta Ola kaleetan bilduko dira eta 19 hilabetez luzatuko dira gutxi gorabehera.

Proiektua

Iparaldeko Konfederazio Hidrografikoak sustatutako proiektua da hau. Garrantzi bereziko lana izango da udalerrientzat, izan ere, Loiolako araztegiarekin konektatuko baita gure sameamendu-sarea.

Ondorioz, ez da Oria ibaira isurketarik egingo eta ibaieren kalitatea eta haren ingurunea hobetuko dela aurreikusten da.

Herritarrei ahalik eta gutxienez jasana izateko eta irtenbideak emateko, lau fase desberdinetan ekingo zaio proiektuari.

Eta fase horietako bakoitzaren berri emango da komunikabideetan, Udalaren webgunean eta eragindako atarrietan.

Lehenengo fasea

Honela, arestian aipatu bezala, lehenengo faseko lanak ostegunean bertan hasiko dira eta Zumaburu kalean eragina izango dute, zehazki, Ola kalearekin elkartzen den tokitik Isla plazako lurpeko parkingeko ibilgailuen irteera arte.

Beraz, Udalak aipatutako eremua asteazkenerako ibilgailuz libre uztea eskatzen du.

Eremuan aldaketak

Lanen exekuzioak lau aste iraungo ditu. Gauzak honela, zirkulazioa Ganbo Kaletik desbideratuko da, gero Zumaburu Kalera sartzeko, moztutako zatia behin pasatuta.

Era berean, lurpeko parkingeko sarrera-irteerak oraingo irteerako arrapalatik egingo da, horregatik, bi semaforo ipiniko dira zirkulazio horiek antolatzeko.

Honetaz guztiaz gain, Zumaburuko kalean aldi batez ezetatuko diren aparkalekuen ordez, Ganbo kalearen alde banatan kotxeak uzteko eremuak prestatuko dira.

Alkatetzak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik eta bizilagunen laguntza izango dutelakoan daude. •



Lasarte-Oriako Misio taldeak afari solidarioak antolatzen ditu urtean zehar.

Haitiren aldeko afari solidarioa larunbatean

Azken asteetan, Haitik jasandako lurrikarari buruzko berriak ditugu hedabideetan. Eta asko izan dira, beren elkartasuna eta laguntza eskaini duten herrialde, elkar-te edo udalak.

Lasarte-Oriako Misio taldeak ere bere harri-koskorra jarri nahi du eta horretarako larunbatean, urtarriaren 30an, 21:00etan Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalean afari solidarioa antolatu du.

Lortutako dirua elizbarrutiko misio taldeak Haitira biderratu duela jakin arazi dute, Mesedeetako Amen ordenaren bitartez.

Hausnarketa


Era berean, Haitin egondako Inma Mugerza hidrogeologoren idazkia helarazi digu taldeak. Honetan, Haiti herri txiroa izateaz gain, herri aurreratuentzat gauza interesgarriak ez duela azpimarratzen du. "Lurrikara bat izan da gure arreta deitu eta Haitira begira jarri gaituena," dio idazkian.

Nazioarteko erantzuna eta Haitira hurbildu diren ehundaka bolondres, sorospentalde eta abar ere aipatzen ditu. "Oraindik argi ez balego, Haitiko gertaerak argi utzi du

gauzak aldatu daitezkeela eta giltza herri aberatsenen esku dagoela. Gu gara iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen arteko ezberdintasunak txikitzeko gai garenak eta bidea egiten hasi beharko ginatete," dio Inma Mugerzak.

Eta honela jarraitzen du, "jakin badakigu, Nekazaritza eta Elikadura Mundu Erakundeak dioenez, munduan egunero 25.000 pertsona gosez hiltzen direla, bost urte baino gutxiago duten 6 milioi haur dira urtero hiltzen direnak. Kezkatu egiten nau zerbaite egiten hasteko beste lurrikara bat gertatu beharko dela edo tsunami batek herrialde horietako baten kostaldea garbitu beharko duela pentsatzeak."

Azkenik, zera adierazten du hausnarketa egin dezagun, "Haitiko lurrikara berri-berria da, egun batzuk besterik ez dira igaro. Baina zer gertatuko da albistegietan ateratzeari uzten dionean? Eta gizaldekoko laguntza-taldeak haien herrialdeetara bueltatzen direnean? Eta berreraikitze lanak amaitzen direnean? Hausnarketa sakon eta luze bat merezi du honek, baina ez luzeegia, izan ere, denborak txiroenen kontra jokatzeko baita." •



Beltzez, Zumaburu kalean itxita egongo den eremua; geziak ibilgailuen bidea eta norabidea azaltzen dute. Arg: Udala.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

ARTEA AFRIKAN izeneko erakusketa ekarri du Max Mbaye senegaldarrak. Erakusketa koloretsua Jalgi kafe antzokian ikusi daitekeena. Lanak salgai daude. Jalgi kafe-antzokian, 9:00etatik 23:30era.



Asteazkena, 27

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZAK ipuin bat irakurriko die liburutegira hurbiltzen diren haur guztiei. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan, EUSKARAZ.



Mari Gorritxu pailazoaren abenturak, mendian

KLOWNTUZ! MENDIA! antzezlanaren eskainiko du Kili-Kolo taldeak. Emanaldi hau abenduan bertan behera geratu zen eta orain eskainiko dute. Bertan Mari Gorritxu hiriko pailazoaren abenturak ikusiko dira. Mari Gorritxu oporretan dago eta bere psikoanalista estrez guztia kentzeko mendira joateko gomendatu dio. Baina mendira iritsi bezain laster, lekuz kanpo sentitu da; ez du mendia ezagutzen, ez du natura ulertzen...

OSTIRALEAN, HILAREN 29AN
JALGIN, 22:30EAN
EUSKARAZ

Osteguna, 28

Zinea

EL LUCHADOR filma ikusgai Okendo Zinema Taldeak antolatutako osteguneko zinean. Sarrera, 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.



Ostirala, 29

Kontzertua

V. MUSIKA TOPAKETEN barruan Irungo ahots zurien NAYADE ABESBATZAK kontzertua eskainiko du. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Larunbata, 30

Antzerkia

Eusko Jaurlaritzak babestua, DESNUDOS EN CENTRAL PARK

umorezko antzezlanaren eskainiko da. Manuel galiana, Enma Ozores, Maria Jose Alfonso, Paco Piquer eta Walter Gamberini ditugu antzezleak. Sarrera, 12 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan eta 22:00etan. GAZTELANIAZ.



Igandea, 31

Zinea

LLUVIA DE ALBONDIGAS filma haurrentzako zinea atalean ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.



Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Euskal Inauterien konpartsa

Euskal Inauterien konpartsa antolatzaileek jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHIko egoitzan egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Animatu zaitezte parte hartzera!

Nazimenduko lagunak eskerrak

Nazimenduaren lagunak taldeak eskerrak eman nahi dizkie abenduaren 24an egindako eskean dirua eman zuten guztiei. Dirua Yankee II Nikaraguako herrixkara bideratuko da Alejandro Romoren bitartez. Mila esker!

Amarau ludoteka

Amarau ludotekako ardura-dunek bigarren hiruhilekoaren matrikulazioa zabalik dagoela jakinarazi nahi dute. Matrikula egiteko edo informazio gehiago jasotzeko, jo Ttakunera, 943 371448, edo

ludotekara bertara (Ola kalea 1, behe). Animatu, Amaraun ludotekan jolastu, ikasi eta ondo pasatuko duzue!

Marrakzi eta pintura eskola

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseak hasi dituztela dagoeneko eta oraindik izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiralean 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

Erketzeko inauterietako konpartsa

Erketz Dantza Taldean jakinarazi nahi du inauterietako beraien konpartsan ateratzeko, entsaioak urtarilaren 26an eta otsailaren 2 eta 9an (asteartean) izango direla Zumaburuko eskoletan iluntzeko 8etan. Gaia Munduko Dantzak da, ze herrialdeko mozorroa bikote bakoitzak erabaki

behar du. Gero dantzak denok batera egingo ditugu. Edonorentzako dago zuzendua, asteartean azaldu besterik ez du egin behar, bai ume edo bai heldu.

Santa Ageda eskea

Erketz Dantza Taldea urtero ateratzen da otsailaren 4an Santa Eskean. Aurtengo entsaioa urtarilaren 29an, ostirala, izango da Zumaburuko eskolan iluntzeko 8etan. Parte hartu nahi duenak, entsaioa azaltzea besterik ez du.

Tokila bat agertu da

Gabonetan erdigunean haurrentzako tokila bat agertu da. Artilezkoa da, beltza. Galdu duenak berreskuratzeko Ttakunetik pasa dadila (943 371448).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com



Inauteriak

Aurten ere Ttakun Kultur Elkarteak deialdi zabala egingo die herritarrei inauterietako desfile bateratuan parte hartzeko. Ostiralerako deitutako bileran, Filmak gaia lantzea aukeratu zen. Parte hartzeko asmoa baduzue, ostiral honetan, hilaren 22an beste bilera bat egingo da Iñigo de Loiola kaleko Gazte Lokalean 17:00etan. Edozein zalantzarekin deitu edo pasa lasai Ttakunetik, 943 371448. Animatu eta hartu parte!

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Iñaki Rocamonde Pilotoa ‘Niretzat autoa droga baten antzekoa da’

Iñaki Racamonde, 37 urteko lasarteoriatarra 22 urterekin hasi zen kotxe txapelketetan parte hartzen. Urte askotan aritu eta kirol honetaz gozatu eta gero, aurreko urtean jaso zituen lehenengo fruituak: Euskadiko txapelketan lehengoa izan zen.

Itxaso MORENO

Familian dauzka Iñaki Racamondek bere jarraitzaile sutsuenak. Kotxeen munduarengatik sentitzen duen pasio bera, pasa dio emazteari eta alabari, Iñakiren garaipenak, guztien garaipen bihurtuz.

Noiz hasi zen rally-ekiko zure zaletasuna?

Txiki txikitatik datorkit zaletasuna. Hala ere 22-23 urte bete arte ezin izan nuen kirol honetan bareratu. Oso garestia da, eta gainera denbora ugari eskatzen du. Gehienbat diru beharra duzu. Kirol hau ezin du edozeinek praktikatu, kostu handia du.

Gazte hasi zinen, baina nondik datorkizu zaletasuna?

Nik uste odolean daramadala. Nik beti izan dut kotxeekiko zaletasuna.

Adibidez futbola, kirolik zabalduena, ez zait batere gustatzen. Beti ni izan naiz pizti arraroa lagun Koadrilan. Buruan beti kotxeak eta kotxeak izan ditut nik. Rallyak, igoerak, inguruan zegoen oro ikustera joaten nintzen txikitan anaiarekin. Kotxe tailerrak ere sarri bisitatzen nituen kotxeak ezagutzeko, nola konpontzen ziren ikustera joaten nintzen, nire jolasaldia izaten zen.

Ba al duzu zuren familian aurrekaririk?

Nire anaiari ere pilo bat gustatzen zaio. Baina nire aita eta amari aldiz, batere, alergia diote. Batez ere nire amak ez du kotxeetaz ezer jakin nahi.

Erabiltzen diren kotxeak ohikoak dira?

Ez, prestaturikoak dira. Serieko kotxeak dira, eta jada badaude erabiliko diren baldintzetara egokitua.

Nola bizi zenituen hastapenak?

Nire betiko ilusioa kotxe karrera bat izatea zen eta azkenean, lortu nuen. Nituen

aurrezki guztiak horretara bideratu nituen. Kotxe bat erosteko lan egin nuen. Nire soldataren zati bat gordetzen nuen, etxean enteratu ez zitezen. Dena sekretupean neraman, aipatu dudan bezala amari ez baitzitzaion batere gustatzen mundu hori.

Nolakoa izan zen zure lehenengo esperientzia?

Ford fiesta bat erosi nuen, Soriana joan nintzen bila, ekarri eta handik gutxira, hain juxtu aste batera, lehenengo karrera izan nuen, Slalom proba bat. Izugarria izan zen, ez nekien ondo nondik nerbilen, galduta nengoen. Estres asko nuen gainera, ondo egin nahi hori, jendearen aurreko lehenengo karrera izanik. Izan ere, azkenean ez zaude bakarrik, jende ugari duzu inguruan begira,

Autoen munduan, laguntzarik gabe, ez dago garaipenik

Gurpilekin zerikusia du bai nire lanak bai nire zaletasunak



Iñaki Racamondek, bere pasioa egi bihurtzeko, jende ugari du inguruan laguntza eta babesa ematen.



Bere alaba jarraitzaile sutsua du Iñakik. Harro dago oso aitaz, eta garaipenak ere bereak egiten ditu.

entzuten dituzu eta sentitzen dituzu. Barakaldon izan zen lehen Slaloma, eta lehenengo igoera Jaizkibelen, urte berean, pozaldi ikaragarria eman zidana. Oraindik ez nuen sinesten, nire ilusioa egia zen azkenean. Gero, gehiago nahi duzu. Kotxea txikia geratu zitzaidan eta aldatu egin behar.

Komentatu duzu garestia dela kirol hau, nola lortzen da behar den dirua?

Lagunengana jo beharra dago. Laguntza gehiena beraiek eskaintzen dizute. Bakoitzak ahal duenaren neurrian laguntzen dizu. Behar beharrezkoa da, babesleak dira. Nire koina-

ta karrozeria-konpontzailea da, bakoitzak ahal duena eskaintzen dizu.

Hasieran diru laguntza eske lagunengana jo zenuen, ba al duzu orain babeslerik?

Horretan gaude. Aurreko urtean ez nuen laguntza askorik izan. Presaka ibili nintzen kotxea ondo jartzen, dena gaizki ateratzen zitzaidan, aldrebes, eta ez nuen babesleak bilatzeko denborarik izan. Lehendabiziko gauza kotxea prestatu eta martxan jartzea da. Lagunek lagundu zidaten, baina diru gehiena nik jarri nuen. Kirol honetan dirua da guztia.

Zuk finantzatuta, baina garailek atera zinen?

Bai, aurreko urtean Euskadiko txapelketan lehenengo geratu nintzen Klase-1 kategorian, 1.400 zentimetro kubiko saillean. Nire lehen garaipen garrantzitsua izan da. Urte asko daramazkit hor borrokan eta azkenean pasa den urtean ahaleginek fruitua eman zuten. Ikaragarria izan zen.

Bakarkako kirola da, ezta?

Bai, zuk bakarrik gidatzen duzulako, baina kotxe honekin parte hartu ahal izatea pertsona askoren lanari esker lortu dut. Dirua ematen dizuten babesleak, torlojoak estutzen dizkizuten anaiak, zerbait apurtu eta aldatzen laguntzen dituzten lagunak... Bakarrik eongo banintz ez nuke ezer lortuko. Laguntzarik gabe, ez dago garaipenik.

Momentu hauetan mendi igoerak egiten dituzu, baina rallytan ere ibili zara, zer nahiago?

Rallyak nahiago. Bide-tarte handiagoa dago; igoerak, jaitsierak, denetarik duzu. Baina denbora eta diru gehiago eskatzen du eta matxurak ere handitu egiten dira.

Zer dira zuretzako rallyak?

Adrenalina igoera. Bete egiten naute. Niretzako deskarga bide bat da. Adibidez, lanetik natorrenean, nekatuta, kotxea hartu, igoera bat egin, eta berpiztuta jaisten naiz. Droga baten antzera jokatzen du niretzat. Batzuk baloia hartu, edota korrika egitera joaten dira, ni kotxea hartu eta gozatzera.

Maiatzean hasiko da denboraldia, zer espero duzu?

Oñatin izango da lehenengo proba maiatzaren 1ean. Gogo handia dut hasteko. Gainera aurreko, babesleak lortuz gero, Euskadiko txapelketatik aparte, beste proba batzuetan parte hartzea gustatuko litzaidake.

Urte asko geratzen zaizkizu oraindik?

Ahal dudan arte behintzat segituko dut. 2009an lortutakoa ez nuen espero, orain gazteria indartsu baitator. Momentuz, mendiko igoerara joaten direnak hor ikusiko naute. •